

AUTOEBALUAZIO ARIKETAK

9.GAIA

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

1. Gogoetan oinarritutako ebaluazio bat planteatu da, ikasleak gaitasunen garapenez ohar daitezten. Hori horrela, zenbat gogoeta-praktika egiten dituzte ikasleek practicum bakoitzean?
 - a. Bat
 - b. Bi
 - c. Hiru
 - d. Sei

2. Atal hauetako zein dago autoebaluazio tresnan eta ez dago ebaluazio tresnan?
 - a. Ikaskuntza emaitza orokorren atala
 - b. Ikaskuntza emaitza espezifikoaren atala
 - c. Gogoeta-praktikaren atala
 - d. Ebaluazio eta kalifikazio sistemaren atala

3. Honela zehazten da lehen mailako ikasle baten practicumaren kalifikazioa:
 - a. Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren erdian, erdiko bileran edo bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken bileran edo hirugarren tutoretzan, 8 puntu erabakitzen dira.
 - b. Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren hasieran, lehenengo tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren erdian, bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken tutoretzan, 6 puntu erabakitzen dira.
 - c. Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren erdian, erdiko bileran edo bigarren tutoretzan, 3 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken bileran edo hirugarren tutoretzan, 7 puntu erabakitzen dira.
 - d. Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren hasieran, lehenengo tutoretzan, 1 puntu erabakitzen da. Zikloaren erdian, bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken tutoretzan, 7 puntu erabakitzen dira.

4. Honela zehazten da laugarren mailako ikasle baten practicumaren kalifikazioa:
 - a. Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren erdian, erdiko bileran edo bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken bileran edo hirugarren tutoretzan, 8 puntu erabakitzen dira.
 - b. Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren hasieran, lehenengo tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren erdian, bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken tutoretzan, 6 puntu erabakitzen dira.
 - c. Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren erdian, erdiko bileran edo bigarren tutoretzan, 3 puntu erabakitzen dira. Zikloaren

- amaieran, azken bileran edo hirugarren tutoretzan, 7 puntu erabakitzen dira.
- d. Amaierako nota 10 punturen gainekoa da. Zikloaren hasieran, lehenengo tutoretzan, 1 puntu erabakitzen da. Zikloaren erdian, bigarren tutoretzan, 2 puntu erabakitzen dira. Zikloaren amaieran, azken tutoretzan, 7 puntu erabakitzen dira.
5. Bai autoebaluazio tresnan, bai ebaluazio tresnan, hirugarren tutoretzan ebaluatu eta kalifikatu beharreko ezinbesteko ikaskuntza emaitza orokorreari dagozkien laukien kolorea honako hau da:
- Urdin argia.
 - Berdea.
 - Laranja.
 - Horia.
6. Azken tutoretza egitean, nork adostu eta sinatu behar dute azken kalifikazioa?
- Instruktoreak.
 - Instruktoreak, ikasleak eta irakasle tutoreak.
 - Irakasle tutoreak.
 - Irakasle tutoreak eta instruktoreak.
7. Gogoeta-praktikak egitean, zer gomendatzen zaio ikasleari?
- Ospitalean ikusten eta baloratzen dituen egoeretan jartzea arreta.
 - Gai bakoitzari erantzutea, behar dituen lerroak erabiliz.
 - Arreta bere buruan jartzea.
 - Erantzun guztiak okerrak dira.
8. Nork betetzen du autoebaluazio orria?
- Instruktoreak.
 - Irakasle tutoreak.
 - Ikasleak.
 - Instruktoreak, irakasle tutoreak eta ikasleak.
9. Nork betetzen du ebaluazio tresna?
- Instruktoreak eta ikasleak.
 - Irakasle tutoreak.
 - Instruktoreak eta irakasle tutoreak.
 - Instruktoreak, irakasle tutoreak eta ikasleak.

ERANTZUNAK

Galdera zenbakia	Erantzun zuzena
1	b
2	c
3	c
4	a
5	c
6	b
7	c
8	c
9	c